

EUSKARAZKO VATIKANOKO II. KONTZILIOKO LIBURUAREN AURKEZPENAK

Liburu handi eta garrantzitsuaren aurkezpena izan dogu azken aldi honetan. Bere garrantzia ikusten dogu bai Elizaren eta bai euskal kulturaren ikuspuntutik. Geroko itziko dogu liburuaren beraren aurkezpena. Orain hasieran ikusi daigun liburu honen inguruan egindako aurkezpenak eta ospakizunak.

Lehenengo aurkezpena eta garrantzitsuena Deustun izan zan, liburuaren ere Unibertsitateko bilduma baten atara zan eta.



1. DEUSTUN: ABENDUAREN 3AN


Abenduaren 3an, Xabierko Frantziskoren jaia ospatzeaz gain, Euskeraren Nazio arteko Eguna burutzean, *Vatikanoko II. Kontzilio Ekumenikoa* liburuaren aurkezpena egin zan Deustuko Unibertsitatean.

Mahaian: ezkerretik eskumara jesarrita: Jose Luis Zinkunegi, Rosa Miren Pagola, Karmelo Etxenagusia, Gotzon Lobera eta Luis Baraiazarra. Eta areto nagusia ia beterik.

Bertan hizlari izandakoen esanetako batzuk eskeintzen deustueguz adierazpen labur honetan, benetan interesgarritzat jotzen ditudalako.

José Luis Zinkunegi (Erljio Kulturaren Bildumako zuzendaria)

- “Erljio Kutturaren Bilduma” talde heldu baten fruitua da: teologiako irakasle, apaiz, erlijioso eta laikoena. Sail hortan argitaratu dugu Kontzilioko testuen liburu hau.
- Lantaldeak, ibilbide luze baten ondoren, proiektu bat eratu zuen. Deustuko Unibertsitateak bere gain hartu zuen gure proiektua: bost urtetan hogeitaz liburu euskaraz sortuak edo itzulpenak argitaratzekoa.




- Proiektuaren edukia eta helburuak: euskal gizarteak bizi duen balio etiko, erlijioso eta gizatiarren krisiari euskaraz eta giza zientzietan eman diren aurrerapenak kontutan harturik, bitarteko eraginkorrez aurre egitea.
- Taldearen zerbitzua: euskaraz material egokiak

sortu, prestatu eta finkatzea eta eskaintzea ikasle, irakasle eta hezkuntza maila desberdinetan aritzen direnei, herri solidarioago eta fededunagoa eraikitzen laguntzeko.

- Egokitzat jo zen Erlijio Kulturaren Bilduma hortan *Vatikano-ko II. Kontzilioaren* itzulpena sartzea, bereziki bere gaiengatik, eta teologiako gaia zelako Kontzilioaren lana.
- Gaurko ekitaldia festa bat da euskal Elizarentzat. Ospa dezagun Kontzilioaren euskal itzulpena.

Luis Baraiazarra. (liburu osoaren itzultzailea)

- Kontzilioa, atzean gelditutako haize bolada indartsu baten antzera ikusten du gaur fededun askok. Ura joan ondoren ote gabiltza presa egin guran?
- Euskarara egindako itzulpen honek, dokumentuak berriro irakurtzea eragin behar luke, ez daudelako inola ere agortuta.
- Latinetik, inguruko erdarazko itzulpenetaz ere baliatuz, egindako itzulpen honek asko lagunduko dio Elizari bere eginkizuna betetzen.
- Mendekoste ezkerro, hizkuntza guztietan berba egiten du Elizak. Eta gutxiengoaren hizkuntzek ere, gureak adibidez, par-taide izan behar-ko lukete Elizaren Mendekosteko bileran.
- Jatorrian latinezko diseinua duten



Kontzilioaren irakatsiek ere, euskarazko jantzi berriaz dantzatu beharko dute gure herrian.

- Zalantza eta zailtasun ugari izan dut, lexiko aldetik baino gehiago latinezko testu originalaren esaldi luze eta korapilatsuengatik.
- Arlo bakoitzeko adituen zuzenketak jaso ondoren, zorrozkiago ekin diot originalari hurbilagotik lotzeari eta lexikoa finkatzeari.
- Guztia zen kontuz hartzekoa: itzulpen hau erreferentzia izan zitekeelako nolabait, ez erlijio gairako soilik, baita kontzilioak hartzen dituen gai zabalagoetarako ere.

Gotzon Lobera. (Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Saileko Euskararako Zuzendaria)

- Xabierko Frantzisko santuaren jaia eta euskararen nazio arteko eguna ospatzen dugu gaur.
- Egun honi atxikitzeko berebiziko gauza oparitzen digute liburu honekin Bizkaiko elizbarrutiak eta Deustuko Unibertsitateak.
- Bizkaiko Elizaren ekarria den hau, Bizkaiko herriaren poza eta zoriona da. Izan ere, herri txikia gara baina ez eskasa, lan handietan ekimentsua.
- Euskarari eusteko Eliza izan da babesleku gogorrenetakoa; segi beza babesleku eta gotorleku izaten. Hemen diot hau, elizgizon eta eliz jende artean.
- Gazte jendea dugu euskaldunena gure gizartean. Badugu erantzukizuna era guztitako ahalbideak eskaintzeko, eurek euskaraz normal bizitzeko aukera izan dezaten.
- “Erljio Kulturaren Bilduma”: azken urteotan diskurtso erlijiosoak euskaraz modu akademikoan sortzeko egin izan den ahaleginik indartsuena.

- Euskaraz egin eta zain dezagun egiten dugun euskara. Atzekoek balioa emango diote guk maite dugunari eta baliokotzat lantzen dugunari.

Rosa Miren Pagola. (Deustuko Unibertsitateko Hizkuntza Politikarako Errektoreordea)

- Argitalpen honen aurrean Aita Kardaberatzen hitzak neure egiten ditut: “Gure euskera oraindino ondasun au gabe arkitzen zen” edo “zeruko liburu miragarri au gure euskerak noizbait ikusi bear zuena, Jainkoaren graziaz zure eskuetan artzen duzu”.
- Berrogei urte igaro badira ere dokumentu hauek prestatu zirenetik, garaiz gabiltza oraino. Izan ere, kontzilio eku-menikoaren doktrina ugari, aberats eta herritzaileak emaitzarik hoberenak sortzeko ditu oraindik.
- Kontzilioak emango dituen fruituak luzaroan bilduko ditu Elizak eta kristau herriak, eta baita mundu osoak ere, ha-




ren irakatsiak Jainko Herria garenok bizitzan eraginkor egiten ditugun neurrian.

- Kontzilioa aintzat hartuz, gure egunetako dramari erantzun beharra dugu: "kulturaren eta fedearen arteko haustura"ren aurrean, inkulturazioa dugu elizaren misio ebanjelizatzailearen egitekorik funtsezkoenetakoa (Paulo VI.ak, Joan Paulo II.ak eta Aita Arrupek).

Karmelo Etxenagusia. (Bilboko Elizbarrutiko Gotzain Laguntzaillea)

- Nire egitekoa liburu mardul honen nondik norakoa azaltzea dala deritzot.
- Euskal Herriko Elizak, alkar harturik, aspaldion dihardue kristinauok behar doguzan liburuak euskeraz argitaratzen: Liturgia, Biblia, Katekesia...



- Gure elizbarrutian aspaldidanik dihardu lanean abade talde batek, bikario nagusia buru dauala: "Euskal baliabideak" prestatzea dabe eginkizun, gure kristau alkarteak dabezan preminei euskerazko argitalpenekin erantzuteko.
- Talde honek aspalditxo somau eban hutsune parka ezina: berrogei urte pasa ondoren, ez geunkan Kontzilioaren dokumentu guztien euskerazko itzulpenik.
- Elizbarruti arteko taldea lanpetuta egoan Mezaliburuaren testuak aztertu eta barrikusten eta Bilboko elizbarrutiak leporatu eban Kontzilioko testuen itzulpenaren ardurea.
- Bizkaitarrok ez dakit, baina bilbotarrak behintzat badabe halako harro fama. Baina apaltasuna egia bada, liburu honi buruz egia esatekotan, bizkaitarron asmoa, ahalegina eta lana dala esan behar.
- Bizkaiko abade talde batena asmoa ta eskaria, bizkaitarrak Markinako fraide Julen Urkiza eta Luis Baraiazarra zuzendari eta itzultzaileak, bizkaitarrak aurkezpen eta sarrera egileak, nahiz eta beste euskaldun askoren ahalegina ere badagoan liburu honetan.

2. DURANGOKO AZOKAN: ABENDUAREN 5EAN

Liburuaren aurkezpena Durangoko azoka barriaren aretoan izan zan 2003ko abenduaren 5ean. Iparraldeko taldetxo bat ere han egoan.

Hizlari honeek izan ziran. Luis Baraiazarra, Julen Urkiza eta Karmelo Etxenagusia, eta mahaiko zuzendari Dorleta Alberdi.

Lusek eta Karmelo Bilboko gotzain laguntzaileak Deustun egindako hitzaldien antzera egin eben. Julen Urkizak liburua aurkeztu eban, eta Deustun liburua bera zehatz aurkeztu ez zanez, hemen jarriko dogu hitzez hitz aurkezpeneko hitzaldia:

"Abenduaren hasieran, orain dala egun gitxi urten barri dogu liburu hau:

VATIKANOKO II. KONTZILIO EKUMENIKOA
Konstituzioak, Dekretuak, Adierazpenak
eta Dokumentu osagarriak.
Euskaraz eta latinez,

Bilbao, 2003, 1500 or. (Deustuko Unibertsitatea).

Arnasa luzeko liburua dogu: 1500 orrialdekoa: gehienbat *Itzulpen-lana* da, Luis Baraiazarrak egina.

Hiru urtean zehar Erroman egin zan Kontzilioa 1965ko abenduaren 8an amaitu zan, orain dala 38 urte. Baina ez daigun pentsatu, antxinako gauza danik, gaur-gaurkoa baino, eta askotan uste geinken baino gaurkoagoa: erabilitako gaiak eta problemak, gaurkoak dira, eta han eskeintzen diran argibideak eta espiritua gaurko egunerako benetan egokiak dira.

Vatikanoko II. Kontzilio Ekumenikoa liburu honek hiru parte nagusi ditu:

- a) KONSTITUZIOAK, DEKRETUAK, ADIERAZPENAK, edo Kontzilioaren beraren dokumentuak.
- b) DOKUMENTU OSAGARRIAK, hau da, Aita Santuen hitzaldiak. Eta
- c) GEHIGARRIAK: Kontzilioko kronika, etabar, baina batez ere gaien aurkibide luzea.

Liburuaren sorrera eta lanak.

Vatikanoko II. Kontzilioa egin zanez gero, ez zan oraindik Elizarentzat eta gizadiarentzat hain garrantzitsuak ziran dokumentuen itzulpenik euskaraz, bakarren batzuk izan ezik. Hutsune horrek kezka sortzen eban batzuengan. "Euskal halia-bideak taldea"k ziharduan batez ere gabezia horri erantzun nahirik. Talde hau Bilboko elizbarrutiko sei-zazpi apaiz euskaldunek osatzen dabe eta liturgia eta katekesirako euskarazko testuak prestatzea dabe helburu. Karmengo Amaren egunean izan eban asmo honek hasiera: talde horretako kide batzuk Markinako Karmeldarrekin hartu-emonetan jarri ziran. Abade

honeek, karmeldarrak Kontzilioko dokumentuak itzultzeko prest egozala ikusirik, serio hitz egin eben Bilboko elizbarrutiko arduradunekin. Horrela sortu zan Markinako Karmeldarrei Kontzilioko dokumentuak euskarara itzultzeko eskaria egitea.

Lana urte batean amaitzeko asmoa zan, baina ia hiru urte luze izan dira... Kontzilioko dokumentu propioak ez ezik, 21 dokumentu osagarriak itzuli dira, eta batez ere gaien aurkibide luzeak benetan luzatu dau lan osoa.

Nortzuk dira lanak egin dituenak.

Itzulpen oso-osoa, hau da, lan nagusia Luis Baraiazarra Karmeldarrena da, eta ikusiko dozuen lez, itzulpen oso ona eta gozoa, hizkuntza honek anima bizia dauko eta orregaitik da itzulpen jatorra.

Julen Urkiza karmeldarrak, barriz, obraren zuzendaritza izan dau bere gain, latinezko testua prestatu dau, dokumentu bakoitzaren sarrerak egin ditu, Kontzilioaren kronologia, eta beste Gehigarriak prestatu, etabar.

Lana burutuz joiala, elizbarrutiko arduradunak Deustuko Unibertsitateari eskatu eutsen laguntza lana argitaratzeko eta, horrela, azken fasean, Jose Luis Zinkunegi jesulagunak esku hartu eban lana bideratzen, hau da, berak zuzentzen duen "Erljio Kulturaren Bilduma" barruan sartzeko.

Ricardo Blázquezek, Bilboko Gotzainak, egin dau liburua-
ren aurkezpena. Eta Angel Maria Unzuetak sarrera orokorrean parte hartu dau.

Baina itzulpena egin zanean, dokumentuak aztertzen, euskarazko testuak zuzentzen eta jardun eben hainbat teologo euskaldunek; hona hemen dokumenturen baten nahiz gehiagoren zuzenketak egin dituenak: Eustasio Etxezarreta, Angel Mari Unzueta, J. Arregi, Javier Goitia, Luis Arostegi, Jesus Mari Arriet, Jose Luis Zunzunegi, J. Apezetxea, Ramon Irizar, Jose Antonio Pagola, Xabier Larrañaga.

Patxi Altunak dokumentu osagarriak aztertu ditu, batez ere estilo aldetik; baina fase honetan Dioniso Amundarainen lana goraipatuko geunke berariaz; testu guztiak edo ia guztiak berrikusi ditu zehatz-mehatz, batez ere estiloa eta joskera kontuan izanik. (Guztiei zor deutsegu geure esker ona).

Metodoa eta xehetasun batzuk

- Dokumentuak *ordena kronologikoan* agertzen dira, dokumentuak onartu eta argitaratu ziran ordena berean, historiaren haria ulertzeko egokiago dirudialako. Gainera, gogoan izan behar dogu, lehenengo dokumentuak eragina izan ebela eginenez joiazan eta geroago onartuko ziran dokumentuetan.


- Kontzilioko testuak euskaraz eta latinez aurkezten dira. Jatorrizko hizkuntzan, hau da, latinez ere aurkeztea erabaki genduan, unibertsitateetan ikasleak erabiltzeko egokiago izan zitekeelakoan.

- Kontzilioko dokumentuak osotzeko egoki ikusi dogu, bai 21 dokumentu osagarriak, Aita Santuenak, sartzea, baita gehigarri batzuk ere.

Orain apurtxo bat bada ere azaldu nahi neuke gehigarrietako atal bat: hau da, ***Gaien aurkibidea***.

309 orrialde dira. Lan gogorra eta luzea izan da. Bat batean gogoia kentzen dabenetariko lana. Baina orain azpimarratu nahi neukena lan honen praktikotasuna da. Lagungarri lez testu frantses bat erabili izan dogu, geure erara moldatua izan da.

Erreferentziak dokumentuaren zenbabitaz doaz, eta oraindino gehiago errazteko orrialdiaren zenbakia ere sartu dogu. Lan hau oso egokia da teologia ikasten dabiltzanentzat, edo irakasleentzat, baita aipaizentzat eta katekesi emoi-leentzat ere; edozein gai hartu eta aurkibide horren bidez nahiko erraz egin leiteke edo artikulua bat edo hitzaldi bat, edo gai baten laburpen sakon edo gain-gainekoa.



Eta uste dogu hau eskertzekoa izango dala. Aurkibide hau da giltzapean dagoan ondasun ederren kutxan sartzeko giltza edo aukera. Kontzilioko dokumentuak ondasun ederra dira, baina gaien aurkibidea ondasun horren jabetza hartzeko giltza da, giltz egokia.

Adibide batzuk:

- Begiratu daigun *Gerra* berba: eta hemen aurkituko dogu gerrari buruzko ikuspuntuen erreferentziak, eta gero atal nagusi bi: *gaur eguneko gerra* eta *kontra egiteko alhaleginak eta eginbeharrak*.

- Edo *Liturgia* berba: liturgia zer dan eta zer eta zenbat ikuspuntutatik aztertu leiteken konturatzen gara: Erreferentzia asko aurkitzen doguz hurrengoko gai berezietan: Misterioa, Eraberritzea, Ospakizuna, Heziera, Liturgi aroa edo urtea, Liturgia Ekialdean, etabar.

- Edo *Maria*, Andra Maria: Salbamen asmoan, Bizitza, Handiespena, Maria eta Eliza, Tituluak, Kultua, Bertutea, Senide banatuegan, Musulmanengan, Doktrina, etabar”.

3. URTARRILLAREN 21EAN, LAUAXETA IKASTOLAN...

Deustuko eta Durangoko Azokako aurkezpenak egin ondoren, Bilboko elizbarrutiko abade taldeko batzuk beste era bateko aurkezpenak gertatu izan ditue.

Hau da, euskarazko Vatikanoko II. kontzilioko liburuaren argitaratzea zala eta Kontzilioari buruz hitz egiteko asmoa, eta teologiazko hitzalditxo batzuk eratu ziran Eubako Lauaxetan, Donostian eta Iruñean: Vatikanoko II. Kontzilioa zer izan zan, zelako harrera izan eban Euskal Herrian, orduko itxaropenak eta eraginak, eta gaurko arazoak, etab.

Deustuko Unibersitatean eta Durangoko azokan egin eban lez Luis Baraiazarrak hizkuntza aldetik jo eban bere hitzaldian.

Urtarrilaren 21 izan zan Kontzilioari buruzko ekintza, lau komunikazio izan ziran:

Kontzilioa euskeraz gaia Luis Baraiazarrak azaldu eban, beste aurkezpenetan egin izan dauan lez; gero gai honeek: Kontzilioa zer izan zan (Jose M. Zunzunegi, Donostiakoa), Kontzilioaren harrera (Angel Mari Unzueta), gerora begira (Mikel Garziandia, Iruñako abadea)... Bakoitzak 20-25 minututan hitz egin eban.

4. DONOSTIAN, IRUÑEAN...

Eubako Lauaxetan egin zan ospakizunari jarraituz, antzeko teologiako hitzaldiak egiteko asmoa dago bai Donostian eta bai Iruñean.

Donostiako hitzaldiak martxoaren 10ean izango dira, eta Iruñekoak martxoaren 26an.

Vatikanoko II. kontzilioko dokumentuak euskaraz argitaratzea, Ricardo Blázquez-ek liburuaren beraren aurkezpenean dinoanez, “egundoko gertakaria da”, eta amaieran: “Itzulpen honek gure elizbarrutiei zerbitzu bikaina eskainiko diela uste dut. Itzulpenak lan neketsua eskatu du adierazpide teologiko egokienak aurkitzeko, bai edukiaren aldetik eta bai hizkuntzaren aldetik, eta horrek guztiorrek eragina izango du Elizaren barruko harremanetan. Itzulpen honek mesede egingo dio euskarari eta kristau-kontzeptuak formulatzeko lagungarri gertatuko da; honela, biak, hizkuntza eta kristau-adierazpidea, aberastu egingo dira eta bien arteko barne-lotura sendotuko.

Latinetik euskara eginiko Kontzilioko dokumentuen itzulpen honek asko lagunduko dio Elizari bere eginkizuna betetzen, Eliza Mendekostez gero hizkuntza guztietan mintzatzen baita. Obraren kalitateak erraztuko du lana”.

Julen Urkiza - Lontzo Zugazaga